

EDITORIAL

Bistaz rot punkten irekiten

LEHENAGO Atxarte eta antzeko eskoletara eskalatzen ikastera joaten zen, gero egintzak Goi-Mendiaren arloetara hedatzeko eta gauza zertxobait zailagoak egiteko. Han «eskola» besterik ez zen egiten, beste askok pistetan eskiatzen ikasten duen bezala, gero negua mendian probetxatzeko zeharbideko eskiari esker. Baina pistako eskia gaur egun guztiz kirol-espezialitate berezia den era berean, alpinismotik zeharo desberdina, bere arau, izakera eta administalgo-egiturarekin, gauza bera gertatzen ari omen zaio eskaladari.

Eskaladak kualitatezko saltua eman du, helburu bihurtu da berez, alpinismotik guztiz desberdina, mendizaletasunaren dinamika eskalada «a tope» praktikatzeko oztopotzat kontsideratua izatera ailegatu delarik.

Eta hau gertatu egiten da kirol eskaladaren oinarritzko arauak berriak ez diren arren: azken mugaren, gehinezko zailtasunaren bila aritzea; egintzaren lerdentasunaren, estetikaren mistika; prestaera fisiko eta psikologikoa azkeneraino eramatearen beharkuntza. Baina helburu horien eskurapenak, elementu berriak barneratzen ditu, zeinen normalizazioak mendizaletasunaren eskemekin topo egiten bait du, hala nola, lehiaketa norbera garaitzeko faktore bezala onartzea, zulatzaileak bezalako tresna teknikoaren ohizko erabilera (pentsa ezazu 8mm-tako «spit» delako bat 10 segundutan ipini ahal izateak suposatzen duen abaintailaz!), bideak goitik zabaltzea, saioaldiak bata bestearen ostean errepikatzea «luze» bat gainditu arte («¡para curtir grado!»).

Ale honetatik hasirik —aurrekoan ere egin genuen pyrenaican kirol— eskaladari ate bat zabaltzen diogu, edertasunaren erakusgarri delako; honela, bere mugak ezagutu ez arren beti gauza berriren bat bilatzen ari direneko aktibitate atletiko hori praktikatzaren duten gazte batzuri, gero eta gazte gehiagori hurbiltzen gatazkiolako; eta aktibitate hau erakustea, soka batez elkar lotzen diren mendizale guztiei probetxagarri gerta dakiekelakoan gaudelako.

Abriendo a vista en rot punkt

ANTES, se iba a Atxarte, y las otras escuelas, a aprender a escalar para ampliar luego el campo de acción en Alta Montaña y poder hacer cosas un poco más difíciles. Aquello era exclusivamente una escuela. Lo mismo que muchos aprenden a esquiar en pista para poder luego aprovechar el invierno en el monte gracias al esquí de travesía. Pero, igual que el esquí de pista es una actividad deportiva por sí misma, totalmente diferente del alpinismo, con sus reglas, su mentalidad y su estructura administrativa propia, lo mismo puede estar pasando con la escalada.

La escalada ha dado un salto cualitativo, convirtiéndose en algo específico, un fin en sí mismo, muy distinto del alpinismo, hasta tal punto que la dinámica del alpinismo es incluso considerada como un freno para la escalada a tope.

Esto ocurre a pesar de que los principios fundamentales de la escalada deportiva no son nuevos: la búsqueda del límite, de la máxima dificultad; la mística de la estética, de la elegancia de la acción; la exigencia de una preparación física y psicológica llevada al extremo. Pero, la consecución de esos objetivos introduce unos elementos nuevos cuya normalización choca con los esquemas del montañismo como son, por ejemplo, la competición admitida como factor de superación, el uso habitual de instrumentos técnicos como los perforadores (¡piensa en la ventaja de colocar un spit de 8 mm. en 10 segundos!), la apertura de vías por arriba, la repetición de uno y otro ensayo hasta superar un largo (¡para curtir grado!)...

A partir de este número —ya habíamos empezado en el anterior— abrimos una puerta en Pyrenaica a la Escalada Deportiva porque es una manifestación de la belleza; porque así nos acercamos a un grupo de jóvenes montañeros, cada vez más numeroso, que realiza una actividad atlética de la que desconocen los límites, pero en la que están buscando siempre algo nuevo; y porque el mostrar esta actividad a los demás puede ser de utilidad a todos los montañeros que se acuerdan.